IGANTZIKO
UDALA

# OSOKO BILKURA ARRUNTAREN AKTA

**Organoa/ Órganoa:** Udalbatza/ *Pleno*

**Deialdia/ Convocatoria:** Lehenengoa / *Primera*

**Bilera mota/ *Tipo de sesión:*** Arrunta / *Ordinaria*

**Eguna/ *Día:*** 2024/07/05 / *05/07/2024*

**Ordua/ *Hora:*** *19:00etan / A las 19:00*

**Tokia / *Lugar:*** Herriko Etxeko Bilera Aretoa / *Sala de Plenos del Ayuntamiento*

**Bertaratuak / *Asistentes*:**

- D. Juankar Unanua Navarro jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Aitor Alonso Esteban jn. Igantziko Herri Taldea.
- D. Roberto Txoperena Iturbide jn. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Irati Alkorta Garcia and. Igantziko Herri Taldea.
- Dña. Edurne Huitzi Eratsun and. Igantziko Herri Taldea. *Gai ordenako 7. puntuan sartu da – Ha entrado en el punto 7 del orden del día.*

**Bertaratu ez direnak/ *No asisten:***

- D. Manuel Telletxea Iparraguirre jn. Igantziko Herria Taldea.
- D. Gorka Obseo Inza jn. Igantziko Herri Taldea.

**Idazkaria/ *Secretaria:*** Nagore Madariaga Iriarte

**AZTERGAIAK/*ORDEN*:**

1. Aurreko aktaren irakurketa eta, bidezkoa balitz, onespena.
2. 2023ko aurrekontu orokorreko kontuen itxiera.
3. Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiarazteraren onespena.
4. Igantziko katastroko 2. poligonoko 207. eta 204. lurzatien aldaketa onespena (pista herri-lurretatik jabari publiko izatera).
5. Agiriak prestatu eta izapidetzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa. Hasierako onespena.
6. Iruzurraren aurkako batzordearen 2024ko ekainaren 18ko bilkuraren berri ematea.
7. Igantziko osasun kontsultako langileen aparkalekuen kudeaketa.
8. Igantziko Udalaren 3. poligonoko 173. lurzatia Canteras de Yanci, S.A.ren 2. poligonoko 450., 366., 372., 370. eta 372. lurzatiengatik trukatzeko Herri Lurren Ataleko azken txostenaren inguruko kexa (exp. Igantzi 1226/SCO/19).
9. Alkate Ebazpenak.
10. Galderak eta eskaerak.



IGANTZIKO UDALA · Karrika Nagusia, 5 · 31790 IGANTZI · ☎ 948 63 77 81 · FAX 948 63 73 01 · e-maila: bulegoa@igantzi.eus · I.F.Z. P3125900-E

Erabakiak/ ***Acuerdos:***

**1.- Azkeneko aktaren onespena.**

2024ko ekainaren 3ko osoko bilkura arrunteko akta AHO BATEZ ONETSI DA.

**2.- 2023ko aurrekontu orokorreko kontuen itxiera.**

Idazkariak adierazi du 2023ko kontuen likidazioa uztailaren 2ko 99/2024 Alkate Ebazpen bidez onetsia izan zela. Era berean, 2023ko kontuen itxiera onesteko 2024ko uztailaren 2ko data duen txostenean xedaturikoa azaldu du, bai eta likidazioa egiteko kontuan hartutako dokumentazio guztia ere.

Horri dagokionez, kontuen itxiera onesteko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 242 artikuluan xedaturikoari jarraiki egin beharra dela azaldu du idazkariak.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- 2023ko kontuen itxierari onespena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea hamabortz egunez, iragarki hau herriko taulan argitaratzen denetik aitzina, interesdunek aztertu eta bidezko erreklamazioak edo alegazioak egin ditzaten.

3.- Behar bezala onartutako kontu orokorra Foru Komunitateko Administrazioari bidaltzea, onetsi eta hamabortz eguneko epean.

***1.- Aprobación del último acta.***

*SE APRUEBA POR UNANIMIDAD el acta del pleno ordinario de 3 de junio de 2024.*

***2.- Cierre de cuentas del Presupuesto General 2023.***

*La secretaria señala que la liquidación de cuentas de 2023 fue aprobada por Resolución de Alcaldía 99/2024, de 2 de julio. Asimismo, expone lo dispuesto en el informe de aprobación del cierre de cuentas de 2023, fechado el 2 de julio de 2024, así como toda la documentación tenida en cuenta para la liquidación.*

*A este respecto, la Secretaria expone que el cierre de las cuentas debe realizarse de conformidad con lo dispuesto en el artículo 242 de la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra.*

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

*1.- Aprobar el cierre de cuentas 2023.*

*2.- Someter el expediente a información pública por un plazo de quince días, a contar desde la fecha de publicación de este anuncio en el tablón de anuncios, a fin de que puedan ser examinados por los/as interesados/as y formular las reclamaciones o alegaciones que estimen oportunas.*

*3.- Remitir la cuenta general debidamente aprobada a la Administración de la Comunidad Foral en el plazo de quince días desde su aprobación.*

**3.- Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiaraztearen onespena.**

***3.- Aprobación de los pliegos reguladores y de la iniciación del procedimiento que regirá la subasta para la venta del aprovechamiento forestal en los parajes de Anddo, Erroizko erreka y Apaola.***

Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamendua egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaile eta teknikoa azaldu ditu idazkariak.

*La secretaria expone el pliego regulador y técnico que regulará la subasta para el aprovechamiento forestal en los parajes de Anddo, Erroizko erreka y Apaola.*

Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetako oihan aprobetxamenduaren salmenta 1. Lote bezala aterako da enkantera, honen prezioa hau izanik:

- LOTEA: 131.216,57 €, BEZa kanpo.

*La venta del aprovechamiento forestal en los parajes Anddo, Erroizko erreka y Apaola Se sacará a subasta como lote 1., siendo el precio de la misma el siguiente:*

- *LOTE 131.216,57 €, IVA excluido.*

Adierazitako oihan aprobetxamendu salmentaren enkantea egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 143 eta 166 artikuluetan xedaturiko prozedura jarraitu beharra da. Halaber, Nafarroako Toki Araubidea Eguneratzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen Bortzgarren Xedapen Gehigarrian eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, enkantea Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaleko iragarki taulan argitaratu daiteke.

*La subasta para la venta del aprovechamiento forestal se rige por el procedimiento establecido en los artículos 143 y 166 de la Ley Foral 6/1990, de la Administración Local de Navarra. Asimismo, de conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional Quinta de la Ley Foral 11/2004, de 29 de octubre, de actualización del Régimen Local de Navarra, y en el artículo 88 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, la subasta puede publicarse en el Portal de Contratación de Navarra y en el tablón de anuncios del ayuntamiento.*

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ETA LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:

*El pleno, una vez oída la información, POR UNANIMIDAD, SIENDO ESTA LA MAYORÍA ABSOLUTA DEL NÚMERO DE MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN, ACUERDA:*

1.- Anddo, Erroizko erreka eta Apaola parajeetan oihan aprobetxamenduaren salmenta egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileak onestea.

2.- Aipaturiko oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen plegu arautzaileak eta plegu teknikoa Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, 15 egun baliodunez, interesdunek euren eskaintzak aurkez ditzaten.

*1.- Aprobar los pliegos reguladores de la subasta para la venta de aprovechamiento forestal en los parajes de Anddo, Erroizko erreka y Apaola.*

*2.- Publicar en el Portal de Contratación de Navarra y en el tablón de anuncios de la Casa Consistorial los pliegos reguladores y el pliego técnico de la subasta de aprovechamiento y venta en la selva mencionada, por un plazo de 15 días hábiles, a fin de que los interesados puedan presentar sus ofertas.*

**4.- Igantziko katastroko 2. poligonoko 207. eta 204. lurzatien aldaketa onespena (pista herri-lurretatik jabari publiko izatera).**

Idazkariak azaldu du Lyntia Networks, S.A.U. enpresak zanja bat irekiko duela zuntz optikoa pasatzeko Igantziko 2. poligonoko 207 eta 204 lurzatien artean igarotzen den pistatik. Pista hau hormigoitua dago eta Katastroko datuen arabera pista horren kalifikazio juridikoa herri-lurra da, berez jabari publikoko kalifikazioa egokia izanen zenean. Izan ere, aipaturiko pista bide publiko bezala erabilia izan da 90eko hamarkadatik.

Horrela bada, 2024ko ekainaren 18an egindako txostenean xedaturikoa eta prestaturiko planoetan agertzen dena azaldu du. Bertan, Katastroko oinarrizko datuen aldaketa bat izapidetzea gomendatzen du.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeko 25. artikuluan xedaturiko oinarrizko datuen aldaketa izapidetu beharko litzateke. Artikulu horretako 3. puntuak honako hau dio:

> *"3. Aldaketa grafiko batek edo titulartasunaren aldaketa batek eragina baldin badu Lurralde Aberastasunaren Erregistroan herri ondasun gisa inskribatutako lurzatietan, beharrezkoa izanen da titular moduan ageri den toki entitateko gobernu organo gorenak hartutako erabakia, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan herri ondasunak aldezteko ahalmena duen unitate organikoaren aldeko txostena ere.*
>
> *Halaber, abelbideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen ondareko edo Estatuko administrazio orokorrak Nafarroako Foru Komunitatean duen ondareko beste ondasun batzuen mugaketari buruz egiten den aldaketa grafiko bat inskribatzeko, ondasun higiezina aldeztu edo kontserbatzeaz arduratzen den departamentu edo organoaren aldeko txostena beharko du Nafarroako Zerga Ogasunak."*

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ETA LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:

***4.- Aprobación de la modificación de las parcelas 207 y 204 del polígono 2 del catastro de Igantzi (pista de comunal a dominio público).***

*La secretaria explica que Lyntia Networks, S.A.U. abrirá una zanja para pasar la fibra óptica por la pista que discurre entre las parcelas 207 y 204 del polígono 2 de Igantzi. Esta pista está hormigonada y según los datos del Catastro la calificación jurídica de la misma es de suelo comunal, cuando en realidad lo adecuado hubiera sido la calificación de dominio público. De hecho, la citada pista ha sido utilizada como vía pública desde los años 90.*

*Así, expone lo dispuesto en el informe emitido el 18 de junio de 2024 y lo que figura en los planos elaborados. En ella recomienda tramitar una modificación de los datos básicos del Catastro.*

*Sería conveniente tramitar la modificación de los datos básicos establecidos en el artículo 25 de la Ley Foral 12/2006, de 21 de noviembre, del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra. El punto 3 de dicho artículo dice lo siguiente:*

> *"3. Cuando una modificación gráfica o de titularidad afecte a parcelas inscritas como bienes comunales en el Registro de la Riqueza Territorial, será necesario el acuerdo adoptado por el máximo órgano de gobierno de la entidad local que figure como titular, así como el informe favorable de la unidad orgánica con capacidad de defensa de bienes públicos dentro de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra.*
>
> *Asimismo, para la inscripción de una modificación gráfica relativa a la delimitación de las vías ganaderas y otros bienes del patrimonio de la Comunidad Foral de Navarra o del patrimonio de la Administración General del Estado en la Comunidad Foral de Navarra, será necesario el informe favorable del departamento u órgano encargado de la defensa o conservación del inmueble por parte de la Hacienda Tributaria de Navarra. "*

*El pleno, una vez oída la información, POR UNANIMIDAD, SIENDO ESTA LA MAYORÍA ABSOLUTA DEL NÚMERO DE MIEMBROS DE LA CORPORACIÓN, ACUERDA:*

1.- 2. poligonoko 207 eta 204 lurzatien artean igarotzen den pistaren katastroko oinarrizko datuen aldaketa onestea.

*1.- Aprobar la modificación de los datos catastrales básicos de la pista que discurre entre las parcelas 207 y 204 del polígono 2.*

2.- Akordioa, planoekin batera, Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalari helaraztea, dagokion aldeko txostena egin dezan.

*2.- Remitir el presente acuerdo, junto con los planos, a la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra para que emita el preceptivo informe favorable*

3.- Herri-lurren Ataleko txostena aldekoa balitz, aipaturiko espedientea Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasun Zerbitzura helaraztea aipaturiko aldaketa erregistratu dezan.

*3.- Si el infome de la Sección de Comunales fuera favorable, dar traslado del citado expediente al Servicio de Riqueza Territorial del Gobiemo de Navarra para que proceda al registro de dicha modificación.*

**5. Agiriak prestatu eta izapidetzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa. Hasierako onespena.**

***5.- Aprobación inicial de la modificación de la ordenanza fiscal reguladora de las tasas por la elaboración y tramitación de documentos.***

Idazkariak azaldu du 2022ko azaroaren 4an egindako osoko bilkura arruntean agiriak prestatu eta izapidetzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa hasiera batez onartu zela. Bertan, jarduera sailkatuen kasuan irekitze lizentzietan ordaindu beharreko tasa indargabetzea adostu zen. Izan ere, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legeak irekitze lizentziak jarduera hasierako erantzukinzunpeko adierazpen batengatik ordezten ditu. Aldaketaren behin betiko idatzia 2023ko urtarrilaren 24ko 16. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (zuzenketa 2024ko ekainaren 18ko 125. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

*La secretaria explica que en el pleno ordinario celebrado el 4 de noviembre de 2022 se aprobó inicialmente la modificación de la Ordenanza fiscal reguladora de las tasas por la elaboración y tramitación de documentos. En ella se acordó derogar la tasa por licencias de apertura en el caso de actividades clasificadas. De hecho, la Ley Foral 17/2020, de 16 de diciembre, de Actividades con Incidencia Ambiental, sustituye las licencias de apertura por una declaración de inicio de actividad bajo responsabilidad. La redacción definitiva de la modificación fue publicada en el Boletín oficial de Navarra núm. 16 del 24 de enero de 2023. Publicado en el Boletín Oficial de Navarra (corrección publicada el 8 de junio de 2024 en el Boletín Oficial de Navarra núm. 125).*

Zentzu horretan, idazkariak ohartarazi du 700 metro karratutik gorako lokalen kasuan ez dagoela jarduera lizentziak ordaindu beharreko tasa erregulatuta. Beraz, irekitze lizentzien tasa indargabetzean, azalera hauetako lokaletan jarduerak egin nahi izatekotan tasarik ordaindu beharra ez dutela antzeman da. Honako egoera hau irregularra dela azaldu du eta 700 metro karratutik gorako lokalen kasuan jarduera lizentzia tasa 0,40€ /m² zehaztea proposatu du.

*En este sentido, la secretaria ha advertido de que en el caso de los locales de más de 700 metros cuadrados no está regulada la tasa a pagar por la licencia de actividad. Por tanto, al anular la tasa de licencias de apertura, se ha detectado que no tienen obligación de abonar tasas en caso de querer realizar actividades en los locales de estas superficies. Expone que esta situación es irregular y propone que en el caso de locales de más de 700 metros cuadrados se fije una tasa de licencia de actividad de 0,40 €/ m².*

Aipaturiko aldaketa onartzeko Nafarroako Toki

*La aprobación de dicha modificación se ajustará a*

Administrazioei buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 325. artikuluan xedaturikoari jarraitu beharko zaio.

*lo dispuesto en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, de las Administraciones Locales de Navarra.*

Horrela bada, informazioa adituta, osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

1.- Agiriak prestatu eta izapidetzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa hasiera batez onartzea. Horrela bada, 700 metro karratutik gorako lokalen kasuan jarduera lizentzia tasa 0,40€ /m² zehazten da.

*1.- Aprobar inicialmente la modificación de la ordenanza fiscal reguladora de las tasas por la elaboración y tramitación de documentos. Así pues, para los locales de más de 700 metros cuadrados la tasa de licencia de actividad se fija en 0,40 €/ m².*

2.- Hasiera batez onartutako akordioaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki taulan argitaratzea, espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean paratuz, herritarrek eta interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

*2.- Publicar el anuncio del acuerdo inicialmente aprobado en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, sometiendo el expediente a información pública por un plazo de 30 días hábiles, a fin de que los ciudadanos e interesados puedan examinarlo y presentar reclamaciones, quejas u observaciones.*

3.- Jendaurreko epean erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez badira, hasiera batez onarturiko aldaketa behin betikoa bilakatuko da eta honako hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

*3.- Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado reclamaciones, quejas u observaciones, la modificación inicialmente aprobada pasará a ser definitiva y se publicará en el Boletín Oficial de Navarra.*

**6.- Iruzurraren Aurkako Batzordearen 2024ko ekainaren 18ko bilkuraren berri ematea.**

***6.- Comunicación de la reunión de la Comisión de Antifraude de 18 de junio de 2024.***

Idazkaria Igantziko Iruzurraren Aurkako Batzordearen 2024ko ekainaren 18ko bilkuraren berri eman du.

*La secretaria da cuenta de la reunión de la Comisión Antifraude de Igantzi de 18 de junio de 2024.*

Horrela bada, informazioa adituta, osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

1.- 2024ko ekainaren 18ko Iruzurraren Aurkako Batzordearen aktan xedaturikoari dagokionez, jakinaren gainean daudela adieraztea.

*1.- Darse por enterados de lo dispuesto en el acta de la Comisión Antifraude de 18 de junio de 2024.*

**7.- Igantziko osasun kontsultako langileen aparkalekuen kudeaketa.**

***7.- Gestión de aparcamientos del personal de la consulta sanitaria de domingo.***

Alkateak Igantziko osasun kontsultatik egindako

*El alcalde informa de la solicitud realizada desde el*

eskaeraren berri eman du (posta elektronikoz bidalia).

*consultorio médico de Igantzi (enviada por correo electrónico).*

Idazki horretan kontsultako erizainarentzako eta medikuarentzako aparkalekuak erreserbatzeko eskatzen dute.

*En dicho escrito solicitan la reserva de plazas de aparcamiento para la enfermera y médico de consulta.*

Horrela bada, alkateak adierazi du kontsulta gibelkaldeko parkea kendu egin zenez, erizainarentzako eta medikuarentzako bi aparkaleku erreserbatzeko toki aproposa dela.

*En este sentido, el alcalde manifiesta que la zona donde se eliminó el parque de detrás del consultorio resultaría ser el lugar adecuado para reservar dos plazas de aparcamiento para enfermería y médico.*

Idazkariak azaldu du, Igantziko osasun kontsultatik helarazitako posta elektronikoa ezin dela eskaeratzat hartu; izan ere, ez du 39/2015 Legeko 66. artikuluan xedaturiko edukia betetzen eta gainera ez da lege bereko 16. artikuluan xedaturiko erregistroen bidez aurkeztu.

*La secretaria expone que el correo electrónico remitido desde la consulta sanitaria Igantzi no puede considerarse como solicitud, ya que no cumple con el contenido establecido en el artículo 66 de la Ley 39/2015 y además no se ha presentado a través de los registros previsto en el artículo 16 de la misma Ley.*

Horrela bada, informazioa adituta, osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

1.- Kontsultaren gibelkaldean (parkea zegoen tokian) erizainarentzako eta medikuarentzako aparkalekua erreserbatzeko onespena ematea.

*1.- Aprobar la reserva de aparcamiento para enfermería y médico en la zona trasera del consultorio, donde se ubicaba el parque.*

2.- Igantziko osasun kontsultakoei aitzinetik eskatzea egindako eskaera 39/2015 Legeko edukiaren arabera aurkeztea eta honako hau Igantziko Udalaren egoitza elektronikotik edo bulegoan aurkezteko eskatzea.

*2.- Requerir previamente al consultorio médico de Igantzi la presentación de la solicitud conforme al contenido de la Ley 39/2015 y la presentación de la misma a través de la sede electrónica u oficina del Ayuntamiento de Igantzi.*

3.- Akordio hau Igantziko osasun kontsultako arduradunari jakinaraztea.

*3.- Notificar este acuerdo al responsable del consultorio médico de Igantzi.*

**8.- Igantziko Udalaren 3. poligonoko 173. lurzatia Canteras de Yanci, S.A.ren 2. poligonoko 450., 366., 372., 370. eta 372. lurzatiengatik trukatzeko Herri Lurren Ataleko azken txostenaren inguruko kexa (exp. Igantzi 1226/SCO/19).**

***8.- Queja sobre el último informe de la Sección de Comunales de permuta de la parcela 173 del polígono 3 del Ayuntamiento de Igantzi por las parcelas 450, 366, 372, 370 y 372 del polígono 2 de Canteras de Yanci, S.A. (exp. Igantzi 1226/SCO/19).***

Alkateak Igantziko Udalaren 3. poligonoko 173. lurzatia Canteras de Yanci, S.A.ren 2. poligonoko 450., 366., 372., 370. eta 372. lurzatiengatik trukatzeko Herri Lurren Ataleko azken txostenaren

*El alcalde da cuenta del último informe de la Sección de Comunales para la permuta de la parcela 173 del polígono 3 del Ayuntamiento de Igantzi por las parcelas 450, 366, 372, 370 y 372*

berri eman du.

*del polígono 2 de Canteras de Yanci, S.A.*

Zentzu horretan, azpimarratu nahi izan du urteak pasa direla aipaturiko trukaketari buruzko kontsulta egin zenetik. Arrazoirik gabeko atzerapen horren aitzinean, uste du komenigarria litzatekeela kexa bat aurkeztea Nafarroako Gobernuko Herri-lurren Atalean, Igantziko Udalaren ezinegona jakinarazteko.

*En este sentido, quiere subrayar que han pasado años desde que se presentó la consulta sobre la citada permuta. Ante esta dilación injustificada, considera que sería conveniente presentar una queja ante la Sección de Comunales del Gobierno de Navarra para comunicar el malestar del Ayuntamiento de Igantzi.*

Osoko bilkurara bertaratutako kideek beraien adostasuna adierazi diote alkateari eta uste dute gaia alkateak hasieratik landu izan duenez honek kexa gutun bidez aurkeztea izanen litzatekeela egokiena.

*Los miembros presentes en el pleno manifiestan su acuerdo con el alcalde y consideran que dado que el alcalde ha tratado el tema desde el principio, lo más adecuado sería que éste presentara la queja por carta.*

Horrela bada, informazioa adituta, osoko bilkurara bertaratutako kideek, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

*Los/as miembros presentes en el pleno, oída la información, ACUERDAN POR UNANIMIDAD:*

1.- Igantziko Udalaren 3. poligonoko 173. lurzatia Canteras de Yanci, S.A.ren 2. poligonoko 450., 366., 372., 370. eta 372. lurzatiengatik trukatzeko Herri Lurren Ataleko azken txostenaren inguruko kexa alkate gutun bidez helarazteko onespena ematea.

*1.- Aprobar la remisión por carta de alcaldía de la queja relativa al último informe de la Sección de Comunales en relación a la permuta de la parcela 173 del polígono 3, del Ayuntamiento de Igantzi, por las parcelas 450, 366, 372, 370 y 372 del polígono 2 de Canteras de Yanci, S.A.*

**9.- Alkatearen Ebazpenak.**

***9.- Resoluciones de Alcaldía.***

2024ko 77tik 103ra Ebazpenen berri eman da eta UDALBATZAK BERRETSI DITU.

*Se informa sobre las Resoluciones del 77 al 103 de 2024 y el PLENO LAS RATIFICA.*

**10.- Galderak eta eskaerak.**

***10.- Ruegos y preguntas.***

Ez dira egin.

*No se realizan.*

Bertzerik gabe, arratsaldeko 20:50 izanik, bilera bukatutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

*Siendo las 20:50 de la tarde se pone fin a la reunión de la que se levanta la presente certificación de la secretaria, para hacer constar lo que se acuerda.*

**O.E ALKATEA/ *V.B. DEL ALCALDE***

Juankar Unanua Navarro

IGANTZIKO UDALA · IGANTZI - NAFARROA

**IDAZKARIA/ *LA SECRETARIA***

Nagore Madariaga Iriarte